

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
19/2012	R13/2017	2017/11/15	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokalekua zehaztea

**Ebazpena: R13/ 2017**

**Espedientea: 19/2012**

Vitoria-Gasteiz hirian, 2017ko azaroaren 15ean,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) planteatutako 19/2012 gatazkari buruzkoa, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (AEAT) aurka, 1 ERAKUNDEA SLk (IFK: --- ----) gauzatu dituen eragiketen bolumena ondo zehazteko, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez eta 2008tik 2009ra bitarteko ekitaldien balio erantsiaren gaineko zerga dela eta. Batzorde honetan izapidetu da, eta Isaac Merino Jara jaunak jardun du txostengile.

## I. AURREKARIAK

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak, 2012ko maiatzaren 21eko idazki baten bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurkako gatazka bat aurkeztu zuen. Idazki hori hilaren 23an erregistratu zen batzorde honetan, eta 2016ko abenduaren 27an izapidetu zen eta 19/2012 zenbakia esleitu zitzaion.

2.- Gatazka planteatzen duen idazkian jasotakoaren arabera, labur-labur honako hauek dira aurrekariak:

-2012ko otsailaren 13an 1 ERAKUNDEA SLren idazkia erregistratu zen Bizkaiko Foru Ogasunean. Bertan adierazten zuenez, 2011ko urriaren 25ean bi adostasun-akta sinatu zituen AEATn 2008 eta 2009 ekitaldietako BEZa zela-eta, eta haien bidez amaiera eman zitzaion Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiak 2011ko apirilaren 12an honako hau egiaztatu eta ikertzeko martxan jarritako jarduketei: «1 ERAKUNDEA SLk aitortutako BEZa ondo ordaindu dela egiaztatzea, eragiketen bolumena Estatuaren eta Foru Administrazioen artean egoki banatzeari dagokionez». Jarduketan ondorioa izan zen «fakturazio guztia lurralde erkidean egin dela»; izan ere, lotura-puntua ez da oinarritu behar ez erregaien eta motor-erregaien salmenten helburuan (bezeroak), ez eta haien jatorrian ere (gordailu fiskalak), baizik eta ondasunak eskuratzailerearen esku jartzen diren gunean, eta eremu horrek ezin du Bizkaia izan, erakundeak ez duelako inolako bitarteko operatiborik lurralde horretan eragiketak egiteko. 1 ERAKUNDEA SLren salmenta-eragiketak horretarako ezarritako zentro operatiboetatik/komertzialetatik gauzatzen dira, eta horiek «(...) lurralde erkidean soilik daude kokatuta (Girona)».

-BFAk honela deskribatzen ditu 1 ERAKUNDEA SLk egindako eragiketak:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
19/2012	R13/2017	2017/11/15	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokalekua zehaztea

-1 ERAKUNDEA SLk hitzarmenak egin ditu C eta T enpresekin, eta haiek gordailu fiskal bana kudeatzen dute Bizkaian; horiek horrela, bi enpresek logistikako eta erregaia eta motor-erregaia haien gordailu fiskaletan biltegitartzeko zerbitzuak ematen dizkiote 1 ERAKUNDEA SLri.

-1 ERAKUNDEA SLk Bizkaian kokatutako Petronor findegian erosten du saltzen duen erregai eta motor-erregaiaren % 98, eta gainerakoa beste petrolio-entresa batzuetatik inportatzen du.

-1 ERAKUNDEA SLk C eta T ERAKUNDEEN zerbitzuak kontratatzen ditu erregaia eta motor-erregaia haien gordailu fiskaletan biltegitartzeko.

-1 ERAKUNDEA SLren bezeroak gasolindegia, banatzaileak eta erregai eta motor-erregaien azken kontsumitzaileak dira, eta, beste gordailu fiskal batzuen aldean, erregaia atera den gordailu fiskaletik hurbilago dute jarduera-zentroa eta, ondorioz, erositako erregaia eta motor-erregaia erabiltzen den gunea. BFAk argitu duenez, zenbat eta hurbilago egon gordailu fiskala eroslearen jarduera-eremutik, orduan eta merkeago aterako da erregaia; beraz, logikoa da erregaia hurbileko gordailu fiskal batetik banatzen duen operadore bati erostea.

-1 ERAKUNDEA SLk 16 gordailu fiskaletatik jarduten du Espainiako estatuan. Bizkaian kokatutako eta jada aipatutako biez gain, Araban (Ribabellosa), Nafarroan, Segovian, Salamancan, Zaragozan, Valentzian, Madrilan, Bartzelonan, Gironan, Lleidan, Tarragonan eta Castellón kokatutako beste gordailu fiskal batzuetatik dihardu.

-1 ERAKUNDEA SLk Bizkaian kokatutako C eta T ERAKUNDEEN gordailu fiskaletako erregaia eta motor-erregaia sartzan du, eta nori erosi dion daki bakarrik, baina ez nori salduko dion. Merkataritza-kudeaketa salgaia gordailu fiskalean biltegitartuta dagoenean jartzen da martxan, eta Gironako enpresatik gauzatzen da. Bezero potentzial berriei bisita egiten dien saltzaile batez ere baliatzen dira, eta hark Bizkaian egiten du lan batez ere, baina baita Gipuzkoan, Araban eta Burgosen ere.

-Bezeroak, Bizkaian dauden gordailu fiskaletan biltegitartutako erregaia edo motor-erregaia erosten badio 1 ERAKUNDEA SLri, produktua gordailu fiskalean bertan jasotzea aukeratu dezake, edo bere jarduera-zentroa duen gunean entregatzea kontratatu. Hala izanez gero, 1 ERAKUNDEA SL arduratzen da erregaiaren garraioaz.

-Bezeroak gordailu fiskalean jasotzen badu produktua, han entrega egiten diotenean eskualdatzen da erosleak erositako erregaiaren eta motor-erregaiaren jabetza; bezeroak erregaia bere jarduera-zentroraino garraiatzeko aukera kontratatzen badu, aldiz, produktua aipatu jarduera-zentroan ematen zaionean.

-2012ko martxoaren 28an, Ikuskaritzako Zuzendariordeak bidalitako txostena jaso zuen Koordinazio eta Laguntza Teknikoko Zuzendariordeak. Bertan aurka egiten zaie Zerga Administrazioako Estatu Agentziak bere aktetan erabilitako argudioei, eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak inhibizio-errekerimendua egin dezala eskatzen da, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari dagokionez, iruditzen baitaio ez dela behar bezala zehaztu Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokion eragiketa-bolumenaren ehunekoa 1 ERAKUNDEA SL erakundearen 2008 eta 2009 ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zerga dela eta.

-BFAREN Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak AEATri inhibizio-errekerimendua egitea erabaki zuen, eta errekerimenduak ez du erantzunik jaso haren aldetik.

-Isilbidea ukaziotzat hartu behar dela interpretaturik, 2012ko maiatzaren 17an dagokion gatazka aurkeztea erabaki zuen BFAK.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
19/2012	R13/2017	2017/11/15	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokalekua zehaztea

-Gatazka 2016ko urtarrilaren 27an izapidetu zen, eta hurrengo otsailaren 1ean jakinarazi zitzaion AEATri; aldi berean, hilabeteko epea eman zitzaion egoki irazitako alegazioak egin eta bidezkotzat jotako frogak eta agiriak eman eta proposatzeko.

-2017ko otsailaren 8an, Arbitraje Batzorde honek amaitutzat jo zuen espedientea eta hala jakinarazi zitzaion, bai BFARI eta AEATri, bai 1 ERAKUNDE SLri, hura ikusi eta aztertu ahal izateko eta egoki deritzen alegazioak aurkezteko, xede horretarako hilabete izanik.

-2017ko otsailaren 16an, AEATk espedientea aztertu zuen.

3.- AEATk ez du alegaziorik egin. BFAk, ordea, egin ditu alegazioak, eta hasieran egin zituen planteamenduak berretsi ditu, haren ustez sendotu egin baitira Auzitegi Gorenak eman dituen hainbat epairen bidez, Nafarroako Foru Komunitatearekiko Hitzarmen Ekonomikoan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen ebazpen jakin batzuen aurka jarri diren errekurtsioak direla eta. Halaber, 1 ERAKUNDEA SLk alegazioak aurkeztu ditu 2017ko martxoaren 14ko idazki baten bidez. Hurrengo egunean erregistratu zen, eta honako hau dio:

-Petrolio-produktuen handizkako merkataritzan aritzen den sozietate bat da, eta eratu zenetik lurralde erkidean du jardueraren egoitza eta helbidea.

-Bizkaiko foru-lurraldean ez du langilerik, negozio-zentrorik, edo inolako instalaziorik, eta Gironako egoitzatik gauzatzen ditu salerosketak, enpresa-erabakiak, fakturazioa, kontratazioa eta gainerako eragiketa guztiak. Izan ere, gaineratzen du, C eta T ERAKUNDEEN titulartasuneko biltegi-gordailuen bidez gauzatzen du bere jardura.

-Ekonomia Itunaren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskuragarri jartzen diren lekuan egindakotzat hartzen dira ondasun higigarri gorpuzdunen entregak.

-1 ERAKUNDEA SLren salmenta-eragiketak hark lurralde erkidean duen zentro operatibo eta komertzialetik egiten dira, eta han zentralizatzen dira merkaturatze-lan guztiak. Erakundearen beraren hitzetan, Auzitegi Gorenak irizpide horri jarraitu dio 2011ko apirilaren 13an antzeko kasu bati buruz emandako epaian.

-AEATk hainbat adostasun-aktatan ondorioztatu du 1 ERAKUNDEA SLren jarduerak lurralde erkidearekin soilik dutela lotura (bat 2008ri buruz, beste bat 2009ri buruz eta beste bat 2010 eta 2011ri buruz).

-Horregatik guztiagatik, haren argudioak onartzeko eta espedientea artxibatze eskatzen du amaieran.

4.- Prozedura Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak (abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua) xedatutakoaren arabera izapidetu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Lehenik eta behin, gogoan izan behar da, alde batetik, AEATk ez ziola erantzunik eman BFAk formulatutako inhibizio-errekerimenduari eta ez duela alegaziorik aurkeztu gatazka honen esparruan eta, bestaldetik, 1 ERAKUNDEA SLk egin dituen alegazioetan adostasun-aktetan jasotako tesiak errepikatzen direla, inolako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
19/2012	R13/2017	2017/11/15	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokalekua zehaztea

aipamenik egin gabe Auzitegi Gorenak arlo horretan eman dituen epaiei. Hain zuzen ere, erakundeari berari buruzkoa da epailetako bat, esaterako, 2017ko urtarrilaren 31koa, Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen aurka sortutako 60/2013 gatazkan emana.

2.- Hortaz, espedientean dagoen dokumentazio guztia eta administrazio interesdunek emandako argudioak aztertu ondoren, esan dezakegu Auzitegi Gorenaren epaiek lehendik ebatzitako beste kasu batzuen antzeko kasu bat dela hau; nolahi ere, Nafarroarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoari dagokionez, zehazki, honako argudio hauek hartu dira kontuan: Auzitegi Gorenaren 2016ko abenduaren 13ko Epaia emandakoa, 37/2016 zenbakiko errekursoan, zeinaren bidez berresten baita Euroshell txartelen bitartez egindako eragiketen tributazioari buruz Nafarroako Arbitraje Batzordeak 2015eko irailaren 9an emandako Ebazpenean (59/2013 gatazkari dagokiona) defendatutako irizpidea; Auzitegi Gorenaren 2016ko urriaren 9ko Epaia emandakoa, 13/2015 zenbakiko errekursoan, zeinaren bitartez berresten baita erregaia Nafarroan kokatuta dauden gordailu fiskaletatik materialki ateratzeko egindako eragiketen tributazioari dagokionez Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak 2014ko urriaren 9an emandako ebazpenaren bidez (51/2012 gatazkari dagokiona) defendatzen den irizpidea; eta, azkenik, Auzitegi Gorenak 2017ko urtarrilaren 31n emandakoa, 35/2016 zenbakiko errekursoan, zeinaren bitartez berresten baita Nafarroako Arbitraje Batzordeak 2015eko uztailaren 16an emandako Ebazpena –hori ere Nafarroan kokatuta dauden gordailu fiskaletatik erregaia materialki ateratzeko eragiketei buruzkoa– (60/2013 gatazkari dagokiona). Hortaz, hiru epai horietan Auzitegi Gorenak eman duen konponbide bera eman beharko dugu guk ere, Ekonomia Itunak jasotzen dituen eta aplikatu diren lotura-puntuak Hitzarmen Ekonomikoan jasotakoak berdinak direlako. BFAk ere irtenbide horren alde egin zuen 2012ko maiatzaren 21eko idazkian eta, arrazoi handiagoz, irizpide bera berresten du 2017ko otsailaren 22an egindako alegazioetan.

3.- Ez dugu arlo honi buruzko iritzia lehenengo aldiz hemen ematen; aurrez ere azaldu genuen 10/2012 eta 18/2012 eta 27/2014 gatazken kariaz (metatuak). Orduan eman genuen ebazpenean (maiatzaren 12ko 7/2017 eta ekainaren 21eko 11/2017 zenbakidunak), arestian adierazi dugun planteamenduari jarraitu genion; hau da, Auzitegi Gorenak Hitzarmen Ekonomikoaren ikuspegitik antzekoa den arazoari dagokionez adierazitakoari eutsi genion. Berdin jokatuko dugu orain, Auzitegi Gorenaren 209/2017 zenbakiko Epaia (2017ko urtarrilaren 31koa) alderdi nagusiak aipatuz oraingoan, 1 ERAKUNDEA SLri buruzkoa baita eta enpresa berak Nafarroan duen jardunbidea jorratzen baitu, Hitzarmen Ekonomikoaren ikuspuntutik.

4.- Zehazki, zuzenbideko lehenengo, hirugarren eta laugarren oinarriak interesatzen zaizkigunez, haien edukiaren zati bat jasoko dugu hemen:

-Oinarrietako lehenengoan, Arbitraje Batzordeak gatazka Nafarroako Foru Komunitatearen alde ebatzi zuela ezartzen da, arrazoibide honetan oinarrituz:

«1 ERAKUNDEA SLk Nafarroako lurraldean C ERAKUNDEAREN zerbitzu logistikoak erabiliz saltzen duen motor-erregaiaren gainean BEZa aplikatu eta eskatzeko eskumena nori dagokion eztabaidatzen da gatazka honetan, eta Hitzarmen Ekonomikoaren 33.6.A.4. artikuluan jasotako irizpidearen edo lotura-puntuaren interpretazioan datza gaiaren mamia; izan ere, hondar-klausula hau ezartzen du: «gainerako ondasun higigarri gorpuzdunak (Nafarroan eman direla ulertuko da), baldin eta Nafarroako lurraldean jartzen badira eskuratzailaren esku».

Aldiz, Nafarroako Zerga Ogasunaren ustez 1 ERAKUNDEA SLk baditu instalazioak Nafarroan, C ERAKUNDEAREN baliatzen baititu, bi erakundeon artean logistika-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
19/2012	R13/2017	2017/11/15	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokalekua zehaztea

zerbitzuak emateko hitzartutako kontratuari jarraikiz. Instalazio horiek 1 ERAKUNDEA SLren zentro operatibotzat har daitezke; izan ere, haren jabetzako motor-erregaia instalazio horietan jasotzen da, han egiten da biltegitratze operatiboa, eta handik igortzen da.

17. Arbitraje Batzordeari 51/2012 espedientean planteatu zitzaionaren antzekoa da kasu hau. Hala, bada, 2014ko urriaren 9ko ebazpen bidez ebatzi zenez, han plazaratutako argudioak ekarriko ditugu oraingoan.

(...)

Motor-erregaia C ERAKUNDEAREN gordailu fiskalean jartzen da 1 ERAKUNDEA SL erakundearen esku, eta handik saltzen die erosten duten hirugarrenei (batez ere, beste banatzaile edo handizkariak, gasolina-zerbitzuguneak eta, gutxi batzuetan, garraiolariak). C ERAKUNDEA eta 1 ERAKUNDEA SL lotzen dituen kontratuak bide ematen du C ERAKUNDEAK Nafarroan jabetzan dituen instalazioak 1 ERAKUNDEA SLren merkataritza-jardueraren xedetzat hartzeko, edo bestela esanda, 1 ERAKUNDEA SLren instalaziotzat; izan ere, edozein enpresaren jarduera gauzatu daiteke hirugarren batzuen jabetzako tresnen bitartez, enpresak haien gaineko eskubiderik badu edo erabilera ahalbidetzen duen izatezko egoera batean bada.

Beraz, ondoriozta daiteke, aztergai dugun kasuan, Nafarroan jartzen dela motor-erregaia eskuratzaillearen esku eta, hortaz, han gauzatzen dela ondasun-ematea, dela aipatutako gordailu fiskalean bertan, dela gordailutik egindako irteera baten ondorioz.

18. Ondorio horrek ez du ezertan urratzen Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 2011ko apirilaren 13ko Epaian –hots, ibilgailu automobilak emateko lekuari buruzko «Rover kasu» delakoari amaiera ematean– ezarritako doktrina.

2014ko ekainaren 30eko (57. gatazka) eta 2014ko urriaren 9ko (51. gatazka) ebazpenetan jada adierazi genuen bezala, Auzitegi Gorenaren epai horretan ez da xedatzen aipatu ibilgailuen emateak egindakotzat ulertu behar direla eskualdatzailearen negozioen zuzendaritza edo administrazio kokatzen den gunean; aitzitik, epai horretan aztertutako kasu zehatzean, zegozkion fakturak non jaulkitzen ziren, aipatu ibilgailuak eskuratzaillearen esku hor jartzen zirela ulertzen zen, faktura horien bitartez eskualdatzen delako dena delako ibilgailuak erabiltzeko ahalmena.

Baina orain eskuartean dugun kasuan ez dira suertatzen epai hori oinarritzen duten premisa faktikoak. Hain zuzen, epai hartan aztertzen zen kasuan gertatu ez bezala, motor-erregaia merkaturatzean garrantzi handia du non gordailutzen den; izan ere, eragin erabakigarria du garraio-kostuetan (bai sarrerakoak bai irteerakoak), balioa erants diezaiokeen gehigarriren bat sartzeko aukeran eta merkaturatzearen beste aldagai estrategiko batzuetan».

(...)

-Auzitegi Gorenaren 2017ko urtarrilaren 31ko Epai horrek, zuzenbideko hirugarren oinarrian, adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak aurka egiten diola Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak formulatutako asmoari, eta gogora ekartzen du Auzitegi Gorenak 2016ko otsailaren 9ko Epaian (13/2015 errekurtsioan emana) adierazitakoa bete behar dela, aztertutakoaren kasu berdina ebazten duen aldetik; (...).

«Are gehiago, adierazten du 2011ko apirilaren 13ko Epaia ez dela aplikagarria; izan ere, Erresuma Batutik garraiatutako automobil batzuen entregari buruzkoa zen, eta egun bateko edo biko geldialdi teknikoa egiten zen Araban kokatutako landa batean, kontzesionarioei emateko lekura arte. Hala, interpretatu zen fakturazioaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
19/2012	R13/2017	2017/11/15	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokalekua zehaztea

gunean gauzaten zela entrega, faktura denez erabiltzeko ahalmena eskualdatzen duen bitartekoa, eta balio erantsia sortzeari buruzko alderdiak ez du ematen lurralde erkidean gauzatu dela ondorioztatzeko biderik; izan ere, Nafarroako gordailu batera joaten diren bezeroei erregaia ematea da kontuan hartu beharreko eragiketa, eta aintzat hartu behar da BEZak, balio erantsia zergapetu baino, kontsumoa zergapetzen duela.

-Azkenik, 2017ko urtarrilaren 31ko Epaia honako hau azaltzen du zuzenbideko laugarren oinarrian: «Arbitraje Batzordeak adierazi eta Nafarroako Foru Komunitateak berriz esan bezala, antzeko kasu bat ebatzi zuen Batzordeak 51/2012 gatazkari ebazpena eman zionean, 2014ko urriaren 9ko erabakiaren bidez, eta Sala honek hala berretsi zuen 2016ko otsailaren 9an emandako Epaian (13/2015 errekurtoa), ondorioztatzen baitzen Nafarroan soilik gauzaten zirela entrega-eragiketa materialak eta, beraz, hori zela lotura-puntua. Horrez gain, baztertu egiten zen aplikagarria izan zitekeen 2011ko apirilaren 13an eman genuen Epaia, Estatuaren Abokatuak argudiatu bezala, guztiz bestelakoa den kasu bat erabakitzen duen neurrian.

(...).

Azkenik, ildo beretik doa 2016ko abenduaren 13ko Epaia, Estatuaren Administrazio Orokorrek Nafarroako Arbitraje Batzordearen ebazpenaren aurka jarritako 37/2016 errekurtoan. Nafarroako Foru Komunitatearen eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren arteko gatazka ebazten du, lurralde erkidean kokatutako enpresa batek kreditu-txartela ematen zaien bezeroei motor-erregaia emateko egiten dituen eragiketen BEZa biltzeko eskumenari dagokionez, ondasun-ematea Nafarroan kokatutako besteren titulartasuneko gasolina-zerbitzuguneetan gauzaten denean».

5.- Adierazitako epaietan, Hitzarmen Ekonomikoaren 33.6.A.4 artikuluko agindua aplikatu da.

-Esan dugun bezala, gu orain lantzen ari garen kasuaren antzekoa lantzen dute, bereziki, Auzitegi Gorenaren 209/2017 Epaia, 2017ko urtarrilaren 31koak, 1 ERAKUNDEA SLri buruzkoak, eta, horrela denez, Ekonomia Itunaren 28. artikulua (Bat zenbakiaren A) letraren 1. apartatua aurreikusitako araua aplikatu beharko dugu, Hitzarmen Ekonomikoaren 33.6.A.4 artikulua baliokidea baita artikulu hori.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak ez duela behar bezala zehaztu 1 ERAKUNDEA SLk (IFK: -----) gauzatutako eragiketa-bolumenetik zer ehuneko dagokion Bizkaiko Lurralde Historikari 2008 eta 2009 ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena du BEZa ordainarazteko, 2008tik 2009rako ekitaldietan, erakundeak kreditu-txartelak erabiliz Bizkaian dauden gasolina-zerbitzuguneetan egin dituen motor-erregaien entregak zergapetzen baitira, eta orobat eskumena du erakunde horrek Bizkaian kokatuta dauden gordailu fiskaletatik egiten dituen entregak ordainarazteko, egiten direla gordailuan bertan, egiten direla bertatik ateratako irteeren bidez, hori guztia,



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
19/2012	R13/2017	2017/11/15	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokalekua zehaztea

Ekonomia Itunaren 28. artikuluko Bat zenbakiaren A) letrako 1. apartatuan xedatutakoa aplikatuz.

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari eta 1 ERAKUNDEA SLri jakinaraztea.